



ESCAJEDO SAN EPIFANIO, Leire

Euskal Herriko Unibertsitatea  
Sarriena auzoa  
Leioa 48940  
leire.escajedo@ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2007), 16; 23-33]

Sarrera eguna: 2006.12.27  
Onarpen eguna: 2007.01.19

# Elikagai transgenikoak Europān, *de ius eta de facto*

(Transgenic food in Europe, *de ius and de facto*)

**E**likagai transgenikoak, eta oro har bioteknologia modernoaren ekarpen gehienak, azken hamarkadetako aurrerapen garrantzitsuenen artean kokatu izan dira, eta haiei esker Hirugarren milurtekoaren elikadura-erronkei aurre egiteko gai izango garela uste dugu. Ulertzekoa da, beraz, azken hamar urteetan haien alde politikoki eta juridikoki egin den lan guztia. *De facto*, baina, bestelakoa da oso elikagai hauen egoera. 2004ra arte ofizialki azaldu ez den moratoria baten pean mantendu dira, eta ezin esan daiteke ordutik hona egoera gehiegi aldatu denik. Lan honek kontraesan honen mamia aztertzen du.

**Giltza-hitzak:** Elikagai transgenikoak. Bioteknologia. Kontsumitzaileak.

**L**os alimentos transgénicos y la mayoría de las aportaciones de la biotecnología moderna son fruto de los avances más importantes de las últimas décadas, y se estima que permitirán hacer frente a los retos alimenticios del Tercer milenio. En consecuencia, resulta comprensible toda la labor política y jurídica desarrollada durante estos años a su favor. No obstante, la realidad de estos alimentos es, *de facto*, muy distinta. Se han mantenido bajo una moratoria que no se ha explicado oficialmente hasta el 2004, y desde entonces la situación apenas ha variado. El presente trabajo analiza el fondo de esta contradicción.

**Palabras clave:** Alimentos transgénicos. Biotecnología. Consumidores.

**L**es aliments transgéniques et la plus grande partie des apports de la biotechnologie moderne sont le fruit des progrès les plus importants des dernières décennies, et l'on estime qu'ils permettront de faire face aux défis alimentaires du Troisième millénaire. Par conséquent, tout le travail politique et juridique développé durant ces dernières années en leur faveur est compréhensible. Néanmoins, la réalité de ces aliments est, en fait, très différente. Elle a été maintenue sous un moratoire et n'a été rendue publique qu'en 2004, et depuis lors la situation n'a presque pas changé. Ce travail analyse le fond de cette contradiction.

**Mots clés:** Aliments transgéniques. Biotecnología. Consommateurs.



**1. Elikagai transgenikoak eta kontsumitzaileen konfiantza mantentzeko erronka:** 1.1 Elikagai transgenikoak Bioteknologia modernoaren Zuzenbidean. 1.2. Elikagaien merkatua arautzea eta transgenikoak. 1.3. Kontsumitzaileen politikak elikagai transgenikoetan duen eragina. 2. **Elikagai transgenikoen lehenengo araudia Europar Batasunean (I): 90eko hamarkada.** 3. **Moratoria gainditzeko urratsak eta 2003ko Erregelamenduak.** 4. **Elikagai transgenikoak baimentzeko prozedura.** 5. **Nola adierazi behar da etiketan elikagai bat transgenikoa dela?** 6. **Transgenikoen aztarna jarraitzeko betebeharrak: trazabilitatea.** 7. **Elikagai transgenikoen araudia hobetu al daiteke?**

## 1. Elikagai transgenikoak eta kontsumitzaileen konfiantza mantentzeko erronka

Kontsumitzaileen babes amankomuneko politikaren esparru autonomo bat ez bada ere, babes hau Europako Erkidego Ekonomikoan hasta-penetatik hartu zen arduretako bat da. Ulertzekoa da nonbait, kontsumitzaileek gabe ez bailegoke barne merkatutik. Ardura honek isla ugari izan zituen Europako Zuzenbide eratorrian, baina 1992 arte ez ziren kontsumitzaileak jatorrizko Zuzenbidean aipatu. Maastrichteko Itunak Erkidegoaren Itunaren XI. Tituluan jaso zuen kontsumitzaileei buruzko lehen aipamena, 129A artikuluan. Beste gauza batzuen artean, erabaki zen Europako Erkidegoak lagundu eta osotu egingo zituela Estatu kideen politikak, "kontsumitzaileen osasuna, segurtasuna eta interes ekonomikoak babesteko eta informazio egoki bat bermatzeko". 1997an, Amsterdameko Itunak zenbait aldaketa bultzatu zituen artikulua honetan, eta aurrerapauso garrantzitsua izan zen bertsioko trinkoaren 153. artikulua informazio egokia jasotzeko bermea eskubide bat zela aitortzea. Jules STUYCKen iritziz, kontsumitzaileek duten eskubiderik oinarritzailea indartu egingo da horrela<sup>1</sup>, kontsumitzaileen beste interes batzuekin konparatuta *status* berezi bat ematen baitaio eskubide honi Erkidegoaren Ituneari<sup>2</sup>.

Gero eta zailtasun gehiago azaldu dira azken urteetan kontsumitzaileek merkatuan duten konfiantza sendotzeko lanean. Europako kontsumitzaileek munduko beste tokietako kontsumitzaile askok baino kontzientzia sendoagoa dute, eta arduraz erantzuten dute beren eskubideak arriskuan jar ditzaketan merkatu harreman eta produktuen aurrean. Hori horrela, europar agintarientzat erronka

latza bihurtu da kontsumitzaileen oniritzia mantentzea, eta ehunka neurri juridiko hartu dira azken hamarkadetan. Hala izanda ere, esan beharra dago beste produktu batzuen merkatuarekin konparatuta, alderaezina dela elikagaien merkatuan gertatu dena, bereziki elikagai transgenikoen kasuan. Nahiz eta oraindik ez den eman haiekin zerikusia duen iskanbilarik, elikagaien etikaren historiak eza-gutu dituen elikagairik *problematizatuena* dira transgenikoak. Hau gertatu da, hein handi batean, haien merkaturatzea elikagaien segurtasuna kolokan jarri duten zenbait krisi garrantzitsuren inguruan planteatu izan delako –behi eroena, haien artean–. Eurobarometroaren arabera, herrialde batzuetako biztanleriaren %80ak ez litzuke inolaz ere gisa honetako elikagaiak kontsumituko, eta Anti-biotech mugimenduek *Frankenstein-food* gisako goitizenak eman dizkiete.

Alde honetatik, beraz, ulertzekoa litzateke produktu hauen industria eta merkataritza ia guztiz geldirik egotea. Egoera hori, baina, ez da desiragarriena ikerkuntza eta garapen politiken aburuz. Elikagai transgenikoak, eta oro har bioteknologia modernoaren fruituak, azken hamarkadetakoa aurrerapenen artean nabarmenarikoak dira eta haien garapena da, dudarik gabe, Europaren indar ekonomikoa bultzatzen dezakeen tresnetako bat. Hori horrela, elikagai hauen ekoizpena juridikoki onargarria izateaz gain, etorkizunerako funtsezkoa dela ulertu da, eta ikerkuntza eta garapen politikek sustatu egingo dute. Esan daiteke, ondorioz, guztiz bestelakoa dela elikagai transgenikoen *de ius* (arau eta plangintza politikoetan) eta *de facto* duten egoera, eta interesgarria irudituko zaigu paradoxa hauen nondik norakoak aztertzea.

Hiru dira elikagai transgenikoen araudia aztertu aurretik kontuan hartu behar diren testuinguruak, araudi honen sorkuntzan eragin garrantzitsua izan baitute. Inoiz aditzera beste zerbait eman bada ere, elikagai transgenikoen araudiak ez dio eskusiboki transgenikoen problematikari erantzuten. Eragin nabariak izan ditu. Alde batetik, Zuzenbideak bioteknologia modernoaren fruitu bezala ikusi izan ditu elikagai transgenikoak, eta, ondorioz, teknologia horri orokorrean aplikatzen zaizkion irizpide juridikoak presente daude elikagai transgenikoen arauetan. Horrez gain, kontuan hartu behar da elikagaiak direla eta, beraz, elikagaien merkatuak Europako Erkidego Ekonomikoan dituen berezitasunek ere eragina izan dutela elikagai hauen araudian. Ezin ahaztu, bestalde, orokorrean kontsumitzaileekiko hurbiltasunak ere neurri bereziak hartzea bultzatu dituela europar agintariak. Murgildu gaitezen, bada, errealitate honetan.

1. STUYCK, Jules. "European consumer Law after the Treaty of Amsterdam: consumer policy in or beyond the Internal Market?", In: *Common Market Law Review* 37/ 2000; 384. or.

2. Ikus REICH, Norbert. "The recognition of fundamental rights in the areas of consumer and environmental protection by the EC", In: KYE (ed.), *EU Environmental law and policy & EU Consumer Law and policy: converging and diverging trends*, Story-Scientia, 1995; 127 eta hurr.

## 1.1. Elikagai transgenikoak Bioteknologia modernoaren Zuzenbidean

Gizakiek ingurumenaren gainean duten ezagumena milaka urtetako lanak ekarri duen arren, azken hamarkadetan paregabeak izan dira gai honetan ezagutu ditugun aurrerapenak. Organismo biziak edo hauen ataletako batzuk erabiltzen<sup>3</sup>, ehun mende baino gehiago dira gizakiek jakin gabe "genetikaren artea praktikatzen dihardutela"<sup>4</sup>. Esan bezala, azken hamarkadetan alde handia markatu da ordurarteko historiarekiko, zientzia eta teknologiaren aurrerakuntza izugarriek zeharo handitu baitute arte horren potentziala. Genetika eta Biologia Molekularren ekarpene- nek ezagutza maila handitu dute, eta Ingeniaritza Genetikoaren gisako instrumentuek posible egiten dute ezagutza horien aplikazio zehatza. Gizakiaren esku jarri dute era eta neurri paregabe- etan bere inguruan dagoen oro eraldatzeko gaitasuna. Bioteknologiaren aurrerakuntzen helburu sektore anitz badira ere, elikadura, osasungintza eta ingurumena dira nabarmenenak<sup>5</sup>, baina, etor litezkeen onurez gain, aurrerakuntza horiek guz- tiak erdi ilunpean daudela aitortu behar dugu. Askok uste dute Bioteknologia teknologia anbi- lente bat dela<sup>6</sup>. Izan ere, Bioteknologiak izango duten eragin ekonomiko, sozial eta zientifikoa parekatu egin daiteke Informazio eta Komunikazio Teknologiak bultzatutakoarekin, baina gaur egun ezin iragarri daiteke haien norainokoa eta, hortaz, ulertzekoa da teknologia hauen erabiltzeak gizarte eta ingurumenari ekar diezazkiekeen arrisku eta kalteen gaineko ardura.

Bioteknologia modernoaren gako askok deitu dute Zuzenbidean aditu direnen arreta. Harengan sortzen diren harremanak eta arazoak arautzea litzateke legegile garaikideak aurrean duen erronkarik handienetako bat, teknologia honetan inplikaturik dauden interesen aniztasun eta ugaritasuna dela-eta. Besteak beste, horrela ikusi da Europar Batasunean elikagai transgeniko- ak arautzeko eman izan diren urrats ezberdinetan. *Elikagai transgeniko* izena ematen zaie genetikoki eraldatutako organismoa (GEO) diren elikagaiei (tomate edo sagar transgeniko bati, adibidez), bai

eta gisa horretako organismoak osagai gisa dituz- tenei<sup>7</sup> (demagun arto transgenikoen garauak dituen produktu bat). Horiez gain, batzuetan trans- geniko bezala onartu dira, zentzu zabalago bate- an, GEOetatik abiatuta sortu diren produktuak ere, adibidez garau transgenikoetatik jasotako irinak dituzten produktuak edo eta pentsu transgenikoak jan dituzten animalien okelak, nahiz eta propioki GEO bat barneratu ez duten.

## 1.2. Elikagaien merkatua arautzea eta transgenikoak

Europar Batasunak elikagai berrien multzo- an sartu ditu elikagai transgenikoak; hau da, 1997 baino lehen merkatuan era esanguratsu batean egon ez diren elikagaien multzoan<sup>8</sup>. Baina multzo horren barruan leku nabarmen bat eman die, eta aitortu du Bioteknologiari esker "elikagai seguru, osasuntsu, orekatu eta anitzak" sortu ahal izango direla. Are gehiago, "Hirugarren milurtekoaren eli- kadura erronkei aurre egiteko funtsezkotzat" hartu ditu transgenikoak. Baina honek ez du lagundu, ezta gutxiago ere, elikagai transgenikoen ikerkun- tza eta merkaturatze prozesuak arintzen. Transgenikoek arazo juridiko askorekin egin dute topo. Elikagai transgenikoei gaur egun Europan aplikatzen zaien araudia ezin azaldu daiteke elika- gaien merkatuak Merkatu Bakarraren eraikuntzan izan dituen berezitasunak kontuan hartu gabe. Aditu behar da ere integrazio prozesuan kontsumi- tzaileei eman zaien garrantzia, bereziki elikagaien segurtasunari eta haiei buruzko informazioari dagokionez. Ezin bistatik galdu, bestalde, elikagai hauek zenbait funtsezko eskubiderekkin egiten dutela topo, hala nola kontzientzia askatasuna, erlijio askatasuna edota osasunerako eskubidea- rekin, bai eta ingurumenaren babeserako eskubi- dearekin ere.

Elikagai transgenikoen historia laburrean eragin handia izan du nolako egoeran zegoen merkatua elikagai transgenikoen merkaturatzea planteatzen hasi zenean. Bai Europan, bai mundu zabalean ere, azken bi hamarkadetako garapen ekonomikoan nabarmendu da integrazio ekonomi-

3. Isaías ZARAZAGA BURILLOk proposatutako definizioa da hau, hurrengo lanean: "Biotecnología genética en agricultura y ganadería (De la producción a la carta... a las nuevas normas ético-jurídicas)", In: *Biotecnología y Derecho. Perspectivas de Derecho Comparado*, Granada: Zuzenbidea eta Giza Genoma Unibertsitate arteko Katedra (ed.), 1998; 311. or.
4. GARCÍA OLMEDO, Francisco. *La Tercera Revolución Verde*, Madrid: Editorial Debate, 1998; 46. or.
5. ESCAJEDO SAN EPIFANIO, Leire. "Avances biotecnológicos y medio ambiente: implicaciones éticas y jurídicas de la Bioseguridad", In: *Biotecnología y Derecho*, Bogotá: Temis, 2003; 167. or.
6. Esamolde bera erabiltzen du Albin ESERek ere: "Biotechnologie und Recht: Strafrechtliche Bewehrung", In: *Bitburger Gespräche Jahrbuch*, 1986/1; 105. or. Bioteknologiak jasan duen aldaketa kualitatiboaz ere, beste batzuen artean, ROMEO CASABONA, Carlos M. *Del gen al Derecho*, Universidad Externado de Colombia, 1996; 26-30 orr., 389-393 orr.; baita "Genética y Derecho penal" lanean, In: *Derecho y Salud*; 56. or. eta BENNETT, David J. (koord.), *Ethical aspects of Agricultural Biotechnology*, 1999; 18. or.
7. Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2001/18/EE Direktibak honela definitzen ditu GEOak: "gizakiak ez diren beste edozein organismo dira, eta euren material genetikoa naturan ematen ez den era batean eraldatu da".
8. Horrela, Elikagai berriei eta elikagaien osagai berriei buruzko 258/97 EE Erregelamenduan. Ikus Europako Egunkari Ofiziala, 1997ko otsailaren 14ko L 043 zkia., 1-6 orr.

ESCAJEDO SAN EPIFANIO, Leire. Elikagai transgenikoak Europan, *de ius* eta *de facto*. *Eleria*. 16, 2007, 23-33



ko progresibo bat, eta integrazio horren zutoinen artean aipatzekoak dira ondasun eta zerbitzuen merkatuak. Europako Erkidego Ekonomikoaren hastapenetatik integrazioerako zailtasun gehien izan duen merkatua izan da elikagaiena, eta esan daiteke ordutik erronka bezala hartu izan dutela europar erakundeek. Elikagaien merkatu honek duen garrantzi ekonomiko eta soziala dela-eta, sektore hau da interbentzio gehien jaso dituen Europar Batasuneko kide diren Estatu guztietan. Nabaria da, bestalde, herrialde bakoitzeko tradizioekin lotura oso estua duela sektore honek<sup>9</sup>, eta horren ondorioz adiera juridiko eta kulturalen aniztasuna islatzen duela. Ulertzekoa da, beraz, elikagaien zirkulazio askeak hasiera-hasieratik izandako ugaritasun eta konplexutasuna. Europar agintaritzek askotan esku hartu behar izan dute oztopo horien onargarritasuna ebazteko.

Hortaz, adostutako integrazioaren garapenerako funtsezkoa da integrazio bidean urratsak ematea, baina garrantzitsua da Batasuneko kideengan gehiegizko mesfidantzarik ez piztea ere. Hori jakinda, Europar Erkidegoko erakundeek zirkulazio askerako oztopo legitimo gehiago onartu dute elikagaien merkatu konplexuan, besteetan baino. Praktikan non ikusten da hau? Elkarrekiko aintzatespen printzipioaren aplikazioan. Eratze itunean bildutako printzipio honek eskatzen du Batasun osoan onartzea kide den Estatu batetik datozkigun produktuak, eta oso gutxi dira printzipio horri legitimoki aurkakotu dakizkioken salbuespenak. Erkidego Ekonomikoaren Ituneko<sup>10</sup> 30. artikulua biltzen ditu salbuespen gutxi horiek, eta orokorrean nahiko zorrotza izan da haiei eman zaien aplikabidea. Baina elikagaien merkaturan, ordea, zabala izan da salbuespen hauen interpretazioa; alde batetik, oraindik asko direlako Estatuak sektore honetan dituzten eskuduntzak osasun publiko eta kontsumitzaileen babeserako, eta bestetik kontsumitzaileentzat oso merkatu sentibera delako.

### 1.3. Kontsumitzaileen politikak elikagai transgenikoetan duen eragina

Nutrigenomikaren araupena bere osotasunean antzemateko, kontuan hartu behar dugu,

bestetik, kontsumitzaileen politikak Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean “babes maila altua” bermatzen zaie kontsumitzaileei (36-38 artikuluetan) eta gako horrek markatzen du, eta asko gainera, beste herrialdeetako araudiekiko aldea. Hasiera batean kontsumitzaileen politika beste politika batzuen aspektu erreflexu bezala ulertu izan zen Europako Ekonomia Erkidegoan, eta elikagaien segurtasunerako neurriak sektorialki bultzatzen ziren. Baina 1970etik aurrera planteamendu hau aldatzen hasiko da, eta kontsumitzaileen politikak nortasun autonomo bat garatuko du. Kontsumitzaileen Politikari buruzko Lehen Hirurteko Planak (1990-1992) indartu zuen aldaketa hori, Planaren testuan bertan laburtzen dela aldaketa honen zergatia: “barne merkatuari etekin altuena atera nahi badiogu, beharrezkoa da hiritarrak merkatu hau erabiltzeko prest egotea”<sup>11</sup>.

Etekin altu hori lortzeko ekimen ugari sustatu dira, horiek guztiek oinarrizko helburu bat dutela komunean: kontsumitzaileek merkatuarengan duten konfiantza sendotzea. Elikagaien merkaturari dagokionez, konfiantza horren sendotzeak eskatu du elikagaien segurtasunerako politika garatzea. 90eko hamarkadaren bukaeran eskandalu larriak eman ziren gai honetan, beste batzuen artean aipatzekoak direla behi eroen krisia eta dioxinen arazoa. Arazo hauen laztasunak kolokan jarri zituen Erkidegoak ordura arte ezarritako segurtasun neurriak<sup>12</sup>, eta Helsinkin bildu zen Europar Kontseiluak (1999) erabaki garrantzitsuak hartu behar izan zituen. Alde batetik, aitortu zuen neurri horiek osotu eta berritzeko beharra zegoela, baina azpimarratu zuen krisi hauen ondorioak ez zirela elikagaien segurtasunaren ikuspegitik bakarrik aztertu behar. Izan ere, kontuan hartu beharra zegoen Erkidegoak ez zuela emergentzia horiei erantzun egoki bat emateko gaitasuna azaldu, eta horrek kontsumitzaileengan mesfidantza sortu zuela<sup>13</sup>. Horri aurre egiteko, kontsumitzaileei dagozkien arazoetan –bereziki elikagaien segurtasunari dagozkienetan– gardentasun gehiago eskaintzeko helburua hartuko dute europar erakundeek. Kontsumitzaileei eman nahiko zaie ezagutza sakonarekin aukeratzeko gaitasuna<sup>14</sup>. Elikagaien segurtasuna hobetzeaz gain, beraz, garrantzitsutzat jo da kontsumitzaileen konfiantza sendotzeko tresnak eratzea, eta, ikusiko dugunez, honek eragin handia izango du elikagai transgeni-

9. RODRÍGUEZ FUENTES, Vicente. “La libre circulación de los alimentos”, In: *El Derecho Agroalimentario*, J.M. Bosch, 2003; 29. or.

10. Hemendik aurrera, EEI.

11. Kontsumitzaileen Politika dela-eta Europar Batasunak eraturako Ekintza Planei buruz, ikus MORILLAS, María J. “La protección de los consumidores en el Tratado de la Unión europea”, In: *La Constitución Española en el ordenamiento Comunitario Europeo* (II), Madril: Ministerio de Justicia e Interior; 1441. or.; WICHARD, Johannes Christian. “Art. 153. Verbraucherschutz”, In: *Kommentar zu EU-Vertrag und EG-Vertrag*, Luchterhand: Darmstadt, 1999; 1488. or.

12. Frantziak debekua ezarri zuen britainiar okela inportatzeko. Ikus GONZÁLEZ VAQUÉ, Luis. “El principio de precaución en la jurisprudencia del Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas: ¿un principio de buen gobierno?”, In: *Estudios sobre consumo*, 68 zkia, 2004; 17-18 orr.

13. PARDO LEAL, J. “El Reglamento general sobre los alimentos: ¿el último recurso para recuperar la confianza de los consumidores?”, In: *Gaceta Jurídica de la UE*, 212 zkia., 2001; 100-101 orr.

14. Horrela jaso du *Elikagaien segurtasunari buruzko Liburu Zuria*-k, COM (1999) 719 in fine, 3. or.

ESCAJEDO SAN EPIFANIO, Leire. Elikagai transgenikoak Europar, *de ius eta de facto*. *Eleria*. 16, 2007, 23-33



koen egoeran, ez bakarrik *de ius*, baizik eta bereziki *de facto* duten egoeran.

Hortik dator, adibidez, elikagai transgenikoen etiketei eman zaien garrantzia. Nahiz eta oraingoz elikagai transgenikoek inolako iskanbilarik sortu ez duten, etiketa eskakizun zorrotzak inposatu zaizkie elikagai hauei. Etiketa egoki bat kontsumitzaileen informaziorako eskubidea betetzeko ezinbesteko tresna da, bere bidez ematen baitira ezagutzera produktuen ezaugarriak, hauek sortzeko erabili diren osagaiak eta prozesuak, bai eta kontsumorako aholkuak ere. Baina etiketei beste onura batzuk ere egotzen zaizkie, elikagaien segurtasunarekin eta osasungintza publikoarekin zerikusia dutenak. Europar Batasuneko erakunde- en ustez, kontsumitzaileei eman beharreko informazioak bermatu behar du kontsumitzaileei elikagaiak era egokian ezagutzeko eta dieta egoki eta anitz bat izateko aukera ematen zaiela<sup>15</sup>, baina uste horiek adierazi diren arren, momentuz oso gutxi dira espresuki arautu diren etiketa eskakizunak. Zorrotzenen artean, esan bezala, elikagai transgenikoenak dira aipatzekoak.

## 2. Elikagai transgenikoen lehenengo araudia Europar Batasunean (I): 90eko hamarkada

90eko hamarkadan europar erakundeek antzeman zuten alde handiegia zegoela herrialdeen artean elikagai berriak eta elikagaien osagai berriak arautzeko orduan. Hori horrela, uste zen produktu hauen merkaturatzean arazo ugari agertuko zirela, eta Erkidego osorako araudi bakar bat sortzeko lanak hasi ziren, zirkulazio askea hobetsi eta konkurrentzia desleiala saihesteko. Elikagai Berrien Erregelamendua izan zen lan horien fruitu<sup>16</sup>. 258/1997 (EE) Erregelamendu honek elikagaien segurtasuna aztertzekeo prozedura bakarra ezarri zuen Europar Erkidegoan, "1997 baino lehen neurri handian salerosten ez zen elikagai edo elikagaien osagarri orentzat". Prozedura horren aplikazioak salbuespen bakarra onartzen zuen: elikagai berri bat elikagai tradizional baten baliokide izanez gero, segurtasun azterketa hori asko arindu zitekeen. Izan ere, funtsezko balioki-

detasun horren zertifikazioak aukera ematen zuen produktu berriak tramite gutxirekin merkaturatzeko.

258/1997 (EE) Erregelamendua elikagai berri guztiak zituen hizpide<sup>17</sup> eta, beraz, ez transgenikoak bakarrik, baina, salbuespen hau dela- eta, Erregelamendu hau aurrerapauso itzela izan zen elikagai transgenikoen merkaturatzean. Merkatu honen egoera konplexuak bi urtera heldu ez zen epe labur batean onartu zuen zenbait elikagai merkaturatzeko bide hau, baina, hala eta guzti ere, garrantzi berezia izan zuen, praktikan 2004ko maiatza arte ez delako transgenikoak merkaturatzeko beste biderik egon. Zenbait enpresek euren herrialdeetako azterketa-erakundeengana jo zuten funtsezko baliokidetasun agiriak lortzeko, horiek lortuta Europako Batzordeari berri ematea baitzen produktuak merkaturatzeko eman beharreko pausu bakarra. Kontuan hartu behar da, gainera, hasiera batean ez zela produktu hauen berezitasuna etiketan adierazi behar, hori egiteko agindua 1139/1998 Erregelamendua<sup>18</sup> jaso zuen arte.

Baina, esan bezala, bide hau oso epe labur batean egon zen zabalik. Handik gutxira, Frantzia eta Italiak oztopoak jarri zituzten, eta hauen atzetik beste zenbait herrialdek, transgenikoek ez zutela funtsezko baliokidetasuna betetzen argudiatuz. 97/618/EE Gomendioak<sup>19</sup> azaltzen duenez, funtsezko baliokidetasunaren irizpidea Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) eta OCDEk proposatu zuten elikagai berrien tratamendurako, baina une horretan bertan zalantzan jartzen hasi zen irizpide honen onargarritasuna<sup>20</sup>. Ezbai horiek berehala azalduko dira, Europar Batzordeak herrialde bakoitzeko Elikagaien Segurtasun Erakundeei aitortu baitziren baliokidetasun hori ebazteko eskuduntza. OME eta OCDEk proposatutako ildo jarraituta, 1996 eta 1997an Erresuma Batuko Aholku Batzordeak arto transgenikoa erabiliz sortutako bi elikagaien funtsezko baliokidetasuna onartu zuen, eta, 258/1997 Erregelamendua argitaratu eta gero, merkaturatzeko bidea aske geratu zen produktu hauentzat. Prozedura jarraituta, ekoizleek Europar Batzordeari eman zioten berri, baina Italiak ukoa aurkeztu zuen. Behi eroen kasuan Frantziak egin zuen bezala, Italiako Osasun Kontseilu Gorenak eta Osasun Institutu Gorenak zalantzan jarri zuten

15. Iritzi hau *Elikagaien legeriari buruzko Liburu Berdea*-k (1997) ere jaso zuen, eta arauak elikadura osasuntsu eta segurua zein neurritan bermatzen zuten hartu zuen helburutzat.

16. Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 258/1997 Erregelamendua, 1997ko urtarrilaren 27koa, elikagai berriei eta elikagaien osagai berriei buruzkoa.

17. Erregelamendua elikagai berrientzako eta elikagaien osagai berrientzako sei kategoria definitu ditu, eta horietatik lehenengo bietan bakarrik leudeke barneratuta elikagai transgenikoak.

18. Kontseiluaren 1139/98 Erregelamendua, 1998ko maiatzaren 26koa, zenbait GEOTatik abiatuta eratu diren elikagaien beharrezko etiketei buruzkoa. Erregelamendu hau aplikatzen zaie 97/98/EE eta 98/294/EE Erabakietan baimendutako produktu transgenikoari.

19. Batzordearen 97/618/EE Gomendia, 1997ko uztailaren 29koa, elikagai berriak eta elikagaien osagai berriak merkaturatu aurretik kontuan hartu beharreko alderdi zientifikoei eta informazioaren aurkezpenari buruzkoa, bai eta 258/97 Erregelamendua jarraituta egin beharreko aurreazterketei buruzkoa.

20. Ikus MILLSTONE, E.; BRUNNER, E.; MAYER, S. "Beyond Substantial Equivalence", In: *Nature* 401 (7), 1999; 525-526 orr.; Zeelanda Berriko Errege Batzordearen Txostena, *Inquiry into Genetic Modification*, 2001eko ekaina, 177-192 orr.; *Amigos de la Tierra* Gobernu Kanpoko Erakundeak aurkeztu eta Emily DIAMANDEK idatzitako dokumentua, *The Great Food Gamble: An Assessment of Genetically Modified Food*, 2001.

Erresuma Batuan egindako segurtasun azterketa, eta txosten horietan oinarritu zuen italiar Estatuak produktu horiek bere merkatuan debekatzeko erabakia.

Enpresa ekoizleek Europako Justizi Auzitegira jo zuten, eta epaiketa luze baten ondoren honek arrazoia eman zien. Behi eroen kasuan ez bezala, elikagaien kasuan bazegoen europar araudi bat (258/1997 Erregelamendua, alegia), eta bertan jasoak ziren osasun publikoa babesteko adostutako neurriak. Ondorioz, Justizi Auzitegiaren ustez, Italiak ezin zituen osasun publikoari dagozkion argudioak aurkeztu zirkulazio askea oztopatzeko. Baina epaiak ez zuen gehiegi konpondu. Alde batetik, ondorio praktikoa gutxi izan zuen, argitaratu zenean transgenikoen egoera asko aldatu zelako EBn. Eta, bestetik, zalantza asko utzi zuen etorkizunerako, espresuki deklaratu baitzuen europar agintaritzek funtsezko baliokidetasun agiri horiek berrikusteko gaitasuna izango zutela arriskuei buruzko datu berriak agertuz gero. Transgenikoen ekoizleak sententziak gaineratutako azken ohar horren aurka azaldu ziren. Haien ustez, horrelako iritziek transgenikoen ospe txarra areagotu besterik ez zuten egiten, eta gainera ez ziren beharrezkoak, etorkizunean gizakien kontsumorako edozein produkturen gainean agertu baitzitekeen neurriren bat hartzeko beharra.

Dena den, eta esan dugun bezala, epaiketa burutu bitartean asko aldatu zen transgenikoen egoera, eta txarrera gainera. 1998 bukatzeaz zegoela, transgenikoen merkatua geldirik zegoen. Europar Erkidegoak baimena eman zuen merkaturatzeko helburuarekin GEO batzuk landatzeko, eta gizakien zein animalien kontsumorako zenbait produktu transgenikok ere lortu zuten merkaturatzeko baimena, baina, argudio ezberdinekin, zenbait herrialdek indargabetu egin zituzten baimen horiek<sup>21</sup>. Batzordea lanpetua zebilen behi eroen eta dioxinen gisako krisiekin, eta ez zuen neurririk hartu transgenikoen auzien gainean. Elikagaien segurtasunari dagozkien krisi horiek zaildu egiten zuten edozein erabaki hartzea, eta kontuan hartzekoa da, bestalde, kontsumitzaileen mesfidantza suspertzen lagundu zutela. Erraz ikus daiteke Eurobarometroaren datuetan: 1997an hiru kontsumitzailetatik bik arduara nabaria agertzen zuen transgenikoei gaineratzen zitzaizkien arriskuen aurrean. Batzuen ustez, hau esplikatu daiteke %75ak eskatzen zuelako etiketetan produktu hauen izaera era egokian adieraztea, eta oraindik ez zegoelako hori arautzen zuen legeriarik inda-

rrean. Baina gauza bat edo bestea dela, mesfidantza jarrera hau indartuz joan zen. 2000ko datuen arabera kontsumitzaileen erdiak esaten zuten genetikoki eraldatu gabeko produktuengatik salneurri altuagoak ordaintzeko prest zegoela, eta Frantzia eta Suediako hiritarren %80ak esaten zuten «inola ere» ez zuketela horrelako produkturik hartuko<sup>22</sup>. Erabaki ezegoki batek kontsumitzaileen konfiantza gehiago urratu zezakeelakoan, ulertzekoa da Batzordeak erabaki arinik hartu nahi ez izatea.

Gauzak horrela, *de facto* –hau da, pronuntziamendu ofizialik gabe– moratoria baten pean geratu ziren produktu transgenikoak. Indarrean zeuden arauak ez zituzten debekatu, baina haien merkaturatzea posible egiten zuen araudia aplikatzen ez zenez, praktikan debekatuta zeudela ematen zuen. 2004 arte, aldaketa gutxi eman zen egoera honetan. Baimen eskari asko egon zen, baita prozedura judizial ugari ere, baina ez zen baimen berririk eman, eta, egoera hau salatzeko, Europar Erkidegoak kanpoko herrialde ekoizleek<sup>23</sup> OMC-WTOren arbitraia eskatu 2003an<sup>24</sup>. Honek guztiak arriskuan jarri zituen ikerketa bioteknologikoak Europan, enpresa eta ikerlariak abantaila gehiago aurkitzen zutelako atzerrian. Hori ikusita europar agintariak moratoria gainditzeko neurriak proposatu hasi ziren.

### 3. Moratoria gainditzeko urratsak eta 2003ko Erregelamendua

Adierazpen ofizialik egon ez zenez, ez daki-gu ziur moratoria honen zergatia zein izan zen, baina adituen azterketek argi utzi dute transgenikoei mesfidantza sortzen zutela, hein handi batean ordenamendu juridikoak ez zituelako behar bezala arautu. Alde batetik, hutsune ugari aurki zitezkeen 258/1997 (EE) Erregelamenduan, bai elikagai berriak arautzerakoan, bai zehazki elikagai eta pentsu transgenikoei zegokienez. Baina ez hori bakarrik. Gogoan izan behar dugu moratoria hasi zela zenbait herrialdek landare transgenikoak helburu komertzialekin landatzeko baimenak indargabetu zituztenean, eta indargabetze horri aurre egiteko tresnarik gabe aurkitu zirela zenbait enpresa bioteknologiko. Ondorioz, landatzeko baimen horien araupenean ere aldaketaren bat egiteko beharra ikusi zen. 2001ean, transgenikoen askatzea arautzen zuen Direktiba berri bat onetsi zen (dagoeneko aipatu dugun 2001/18/EE

21. Austria, Frantzia, Alemania, Grezia eta Luxenburgok.

22. Herrialde ezberdinetako datuen konparaketa bat egiten du MacMAOLAINek. "The new genetically modified food labelling requirements: finally a lasting solution?". In: *European Law Review*, 28, 6. zkia, 2003; 865-866 orr.

23. Ameriketako Estatu Batuekin batera, Argentina, Kanada eta Egiptok sinatu zuten salaketa, eta harekin adostasuna adierazi zuten Australia, Txile, Kolonbia, El Salvador, Honduras, Mexiko, Zeelanda Berria, Peru eta Uruguaiak.

24. Xehetasunetarako, ikus SALMON, Naomi. "An European perspective on the precautionary principle, food safety and the free trade imperative of the WTO". In: *Eur Law Review* (2002), 27. zkia; 146-148 orr.



Direktiba, 90/220/EEE Direktiba indargabetzen zuena). Direktiba berri hau 9/2003 Legearen bidez<sup>25</sup> islatu da espainiar ordenamenduan.

Beste ardua bat agertu zen laborantza transgenikoen eta konbentzionalen baterako landatzeak ekar zitzakeen arazoak zirela-eta. Ez zegoen oraindik finkatuta laborantza mota bi haien koexistentziak zein ondorio izan zitzakeen, eta argitu gabe zegoen GEOen laborantzak beste laborantzetan sortutako kalteengatik erantzukizuna juridikoki nola finkatu behar zen ere. Baina hutsunerik handiena, agian, aztarnen jarraipenari eta elikagai eta pentsu transgenikoen etiketei zegokien. Genetikoki eraldatutako produktu bati laborantza fasetik kontsumorako eskaini arte jarraipen bat egiteko gaitasunari esaten zaio trazabilitadeara edo aztarnen jarraipena eta, ikusiko dugunez, funtzio garrantzitsuak betetzen ditu elikagaien segurtasunari eta kontsumitzaileen eskubideei dagokienez. Etiketen arauak, bere partez, zehaztu beharko zuketean nola adierazi behar den produktu bat edo bere osagai bat GEO bat dela edo GEO batetik eratorria dela.

Elikagai berriei buruzko Erregelamenduak (258/1997) ez zuen behar bezala arautu hau guztia. Lehenik eta behin, ez zuen egin elikagai eta pentsu transgeniko ezberdinen arteko bereizketa argi bat. Izan ere, ez dira gauza bera: 1) genetikoki eraldatutako organismo diren pentsu edo elikagai transgenikoak; 2) genetikoki eraldatutako organismoa barneratu duten pentsu edo elikagai transgenikoak; eta 3) gisa honetako organismo bat eduki gabe, horietako batetik eratorriak diren produktuak. Laugarren multzo bat ere bereizi liteke, gerta baitaiteke Bioteknologia modernoaren emaitza ez diren pentsu eta elikagaietan genetikoki eraldatutako organismoak egotea istripu bat dela-eta, edo eta teknikoki ezin izan delako presentzia hori saihestu. Araudi berriak sailkapen hau kontuan hartzeko beharra zegoen, talde bakoitzaren berezitasunak aditzeko, baina baita ere talde horietako bat ere arautu gabe gera ez zedin. Une hartan elikagai transgenikoak ekoitzi eta kontsumitzaileei eskaintzeko prozedurei zegokionez, lehen multzoetako elikagai eta pentsu batzuk, hau da, GEO bat diren edo GEO bat duten pentsu edo elikagai transgenikoetako batzuk, 90/220/EEE Direktibak arautzen zituen. Kanpoan geratzen ziren, beraz, beste elikagai transgeniko batzuk, baina hau ulertzekoa da, Direktiba honen helburu nagusia ez zelako elikagai hauek arautzea, genetikoki eraldatutako organismoen askatzea baizik.

Egoera honek okerrera egin zuen 1997an, Elikagai berriei buruzko Erregelamendua onetsi eta gero. Erregelamendu honen menpe geratu ziren GEO diren elikagaiak, eta hauentzako baimena lortzeko prozedura mota bi eskaintzen ziren: prozedura arrunt bat, oso korapilotsua, eta funtsezko baliokidetasunean oinarritzen zena, hau berriz arinegia. Prozedura arruntean Batzordeak eta Estatu guztiek hartzen zuten parte, eta gerta zitekeen, beraz, Estatu baten ukoa zela-eta baimen eskariari ezetz esatea. Enpresak, bide hori alde batera utzi eta funtsezko baliokidetasunaren prozedura erabiltzen saiatu ziren. Esan bezala, 258/1997 (EE) Erregelamenduan genetikoki eraldatutako elikagaiei aurreikusitako prozedura berezia (arina) elikagai transgeniko bati aplikatu ziezaioketen, elikagai tradizional batekiko funtsezko baliokidetasuna demostratuz hero. Prozedura honetan, herrialde bakar batean funtsezko baliokidetasunaren ziurtagiria lortu eta gero, produktua merkaturatzeko eman beharreko pausu bakarra Batzordeari komunikazio bat bidaltzea zen. Bide honetatik legezatu ziren zenbait elikagai, baina aukera honetatik kanpo geratu ziren genetikoki eraldatutako pentsuak eta genetikoki eraldatutako gehigarri eta usain emaleak ere, Erregelamenduak ez baitzituen arautzen<sup>26</sup>. Dena den, eta esan dugunez, handik gutxira arau honen aplikazioa *de facto* eten egin zen, indarrean sartu eta hilabete batzuetara zenbait Estatuk prozedura honetan ere ukoa aurkezteko bide bat aurkitu zutelako. Ez Batzordeak, ez eta Europako Justizi Auzitegiak ere, ez zuten moratoria egoera hori konpondu<sup>27</sup>.

Mesfidantza piztu zuten, bestetik, etiketen gainean indarrean zeuden araudiaren arauen akats eta hutsuneak. Genetikoki Eraldatutako Organismo batetik eratorriak ziren elikagaien kasuan, Erregelamenduak esaten zuen berezitasun hori etiketan adierazi behar zela, bi baldintza betetzen zirenean. Lehenengoa, GEO batetik eratorritako osagaia produktuaren %1 baino gehiago izatea, eta, bigarrena, osagai hori dagoeneko merkatuan existitzen zen beste elementu baten baliokide ez izatea. Hortaz baliokidetasun honen egiaztatzeak posible egin zuen etiketa berezirik gabe elikagai transgeniko gutxi batzuk Europako merkatuan sartzea<sup>28</sup>. Akats horiei gaineratu zitzaizen lehenago aipatu dugun 1139/98 Erregelamenduak etiketa arau berezi batzuk ezarri izan zituela soja eta arto transgeniko mota konkretu batzuentzako.

Gauzak horrela, 2003ko urrian elikagai eta pentsu transgenikoei aplikatu beharreko Erregela-

25. Genetikoki eraldatutako organismoen erabilpena, askatzea eta merkaturatzea arautzen duen 9/2003 Legea, apirilaren 25ekoa.

26. Bitartean, GEOetatik abiatuta ekoizitako pentsuei 82/471/EEE eta 70/524/EEE Direktibak aplikatzen zitzaizkien, eta gehigarri eta usain emale transgenikoei, berriz, 89/107/EEE eta 88/388/EEE Direktibak.

27. ESCAJEDO SAN EPIFANIO, Leire. "Revocación de autorizaciones relativas a OMG al amparo del principio de precaución (con especial atención a la doctrina del TJCE)", In: *Rev Der Gen H* 18/2003; 139. or. eta hurr.

28. TAMAMES, Ramón. *Los transgénicos*, 2003; 81. or. eta hurr.; MARTÍN URANGA, Amelia. "Las zigzagueantes políticas legislativas de la Unión Europea en relación con los productos transgénicos", In: *Rev Der Gen H* 19/2003; 168-169 orr.

mendu bi onetsi ziren, handik sei hilabetera (2004ko martxoan, beraz) indarrean sartu zirenak: 1829/2003 Erregelamendua, elikagai eta pentsu transgenikoei buruzkoa, eta 1830/2003 Erregelamendua, genetikoki eraldatutako organismoen trazabilidade eta etiketak arautzen dituen, bai eta GEOak erabiliz sortutako elikagai eta pentsuena<sup>29</sup>. Erregelamendu berrien gakoak dira pentsu eta elikagaien baimentze prozedurak, etiketen arautzea eta trazabilidade neurriak.

Erregelamendu hauek 2002an proposatu zituen Europar Batzordeak, 2001/18/EE Direktiba indarrean sartu eta gero. Garrantzitsua da azpimarratzea Elikagaien segurtasunari buruzko 178/2002 Erregelamendua ere sortu berri zuela, eta Erregelamendu honek *Elikagaien Segurtasunaren Europar Agentzia* (EFSA) eratu zuela. Araudi berriaren ezaugarrien artean nabarmena da elikagai eta pentsu transgeniko guztiei aplikatzen zaiela<sup>30</sup>. Hau da, lehenago egin ditugun hiru multzoei aplikatzen zaie, bai eta zenbait elikagai eta pentsu arruntei ere, baldin eta azken hauek ezuste bat dela-eta GEO bat badago (hau da, istripu baten ondorioz edo teknikoki saihesteko modurik egon ez delako). Elikagai eta pentsu transgeniko guzti-guztiak ez daude, dena den, araudi berri honen menpe, kanpoan utzi baititu haien produkzioan genetikoki eraldatutako lagungarri teknologiko bat erabili duten elikagai ez transgenikoak. Adibidez, genetikoki eraldatutako amilasa erabiliz sortutako okin produktuak eta pentsu transgenikoein elikatutako animalia ez transgenikoetatik eratorritako elikagaiak (okela, esnekiak...)<sup>31</sup>.

#### 4. Elikagai transgenikoak baimentzeko prozedura

Araudi berriaren helburua da produktu guztietarako baimentze prozedura bakar bat ezartzea, eraginkorra eta gardena gainera. Elikagaien Segurtasunaren Agentziak zaintzen du prozesu hau, baina *Elika katearen batzorde iraunkorrak*<sup>32</sup> eta Estatuak ere parte-hartze garrantzitsua dute bertan. Prozedura bakarra bada ere, baimena eskatzeko aukera ezberdinak daude. Eskatu daiteke orokorrean genetikoki eraldatutako organis-

mo bat elikagai edo pentsugintzan lehengai bezala erabiltzeko baimena, edo baimen zehatzago bat, produktu transgeniko konkretu baten gainekoa<sup>33</sup>. GEO bat edonola erabiltzeko baimenak produktu bakoitzeko banakako baimena eskatu beharra salbuesten digu, baldin eta produktu horiek baimen orokorrean ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte. Bai kasu batean, bai bestean, baimen eskariak herrialde bakoitzean aurkezten dira, eta dagokion agintaritzak nazionalak Elikagaien Segurtasunaren Europar Agentziari bidaltzen dizkio.

Baimentze prozeduraren tresnarik garrantzitsuenak, elikagai edo pentsuaren arrisku azterketa da, baina bestelako argibideak ere eman behar ditu eskatzaileak baimena eskatzerakoan. Orokorrean, eskatzaileak hiru gauza demostratu behar ditu: lehenengoa, elikagaiak ez duela gizakien osasunean kalterik sortzen; bigarrenik, produktuari eskatzen zaio kontsumitzaileengan errakuntzarik ez suspertzea eta, azkenik, kontsumitzaileak abantailarik ez galtzea beste elikagai tradizionalekin konparatuta eta nutrizio ikuspegi batetik. Eskakizunak oso antzekoak dira genetikoki eraldatutako pentsuen kasurako<sup>34</sup>.

Hori, dena den, arriskuei dagokienez. Baina, esan bezala, bestelako argibide batzuk ere eman behar dira baimena eskatzerakoan, eta argibide horiek distantzia nabari bat markatzen dute elikagai konbentzionalekiko. Besteak beste, elikagaia edo pentsua transgenikoa denean, eskatzaileak idatziz azaldu behar du alde handia dagoen edo ez elikagai edo pentsu transgeniko baten ezaugarrien eta antzeko elikagai konbentzionalen artean. Gainera, produktuak etika edo erlijioen ikuspegitik zalantzarik suspertzen duen edo ez<sup>35</sup> adierazi behar da idatziz. Argibide hauek ez dute baimenarekin zerikusi handirik, baimena eman baitaiteke nahiz eta aipatutako ezaugarrien artean alde handia egon edo produktuak zalantza etiko zein erlijiosoak suspertu, baina, hurrengo epigrafean ikusiko dugunez, badute ondorioz etiketari dagokionez.

Eskariak Elika katearen batzorde iraunkorrek ebazten ditu, bertan Estatu guztiak ordezkaturik daudela, eta, azalpenik gabeko moratoriarik berriro sortu ez dadin, Erregelamenduek ebazpen prozeduraren urratsak eta epeak aurreikusi dituzte.

29. Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 1829/2003 eta 1830/2003 Erregelamenduek, 2003ko urrian argitaratuak, bata genetikoki eraldatutako pentsu eta elikagaiei buruzkoa, eta bestea elikagai eta pentsu horien trazabilidade eta etiketei buruzkoa.

30. Araudi hau espezifikoa denez gero, esan daiteke 258/1997 Erregelamendutik salbuestita geratzen direla elikagai transgenikoak, baina kontuan izan behar da Erregelamendu horretako 1.2.a) artikuluan barneratuta geratzen direla oraindik ere 2003ko Erregelamenduek kontuan hartu ez dituzten kategoria marginal batzuk.

31. Adibide gehiagorako, ikus EUROPEAN COMMISSION. *Questions and Answers on the Regulation of GMOs in the EU*, Brusela, 2003.

32. Batzorde hau Elikagaien Segurtasunerako 178/2002 Erregelamendua eratu zuen.

33. Ikus 1829/2003 Erregelamenduko 3 eta 15 artikulua.

34. Aipatutako eskakizun horiek 1829/2003 Erregelamenduko 4.1 eta 5.3. e) artikuluetan jaso dira elikagaiei dagokienez, eta antzeko eskakizunak aipatzen dituzte 16.1 eta 17.3. e) artikuluek pentsuetarako.

35. Elikagaiei dagokienez, 1829/2003 Erregelamenduko 5.3 artikuluan, f eta g ataletan; pentsuentzat, berriz, Erregelamendu beraren 17.3 artikuluan f eta g ataletan.



Lehenengo urratsa, Elikagaien Segurtasun Agentziaren azterketa bat da. Honek sei hilabeteko epea du iritzia emateko, eta epe horretan laguntza eska diezaieke zenbait erakunde publikori, osasun eta ingurumenarentzako arriskuak aztertzeko. Agentzia honen iritzia irakurrita, baina ez derrigorean zentzu berean, Batzordeak ebazpen proposamen bat aurkezten dio Elika katearen batzordeari. Estatu guztien ordezkariak biltzen dituen batzorde honetan batez besteko botoa dago, eta gehiengoaren araua jarraituz hartzen dira erabakiak. Hori horrela, ezin oztopatu dezakete Estatu batek edo gutxi batzuek baimena ematea<sup>36</sup>. Baiezko ebazpenak hamar urteko epera luzatu daitekeen baimen ematea dakar. Epe hori burututa, baimenak luzatzeko aukera dago, baina kontuan izan behar da hauen iraupen epea bukatu baino lehen Batzordeak berak edo Estaturen batek eska dezakeela emandako baimen baten berrikuspena. Berrikuspen honen ondorioz, baimena aldatu, suspenditu edota baliogabetu daiteke.

## 5. Nola adierazi behar da etiketan elikagai bat transgenikoa dela?

2003ko urrian onetsitako Erregelamenduen edukian parte garrantzitsua dira etiketei buruzko arauak. Elikagai transgenikoen kasuan, etiketek helburu bikoitza dute. Alde batetik, kontsumitzaileen eskubideak betetzeko tresna dira, bereziki informazioa jasotzeko eskubideari dagokionez, eta, 1999an Helsinkiko Kontseiluan adierazi zen bezala, europar erakundeek gisa honetako tresnekin landu nahi dute kontsumitzaileen konfiantza barne merkatuan. Baina beste edozein elikagaien kasuan bezala, etiketek osasungintza publikoko helburuak ere badituzte. Etiketak arautzerakoan, Erregelamendu hauek Elikagaien etiketa eta publizitateari buruzko 2000/ 13/ EE Direktibak etiketei buruz ezarritako irizpide nagusia hartu dute abiapuntutzat: "etiketak ez du eroslea nahastu behar elikagai produktu baten ezaugarrien gainean, bereziki honen natura, identitatea, gaitasunak, konposaketa edota produkzio moduaren gainean"<sup>37</sup>. 2003ko 1829 eta 1830 Erregelamenduek elikagai transgenikoen etiketan ager litezkeen informazio mota ezberdinak arautzen dituzte. Lehenik eta behin, zehaztasunez adierazten dute nola agertu behar den etiketan elikagai bat transgenikoa dela. Baina bestelako argibideak ere eman litezke etiketa horietan. Beste gauza batzuen artean, derrigorrezkoa da esatea, adibidez, elikagai transgeniko batek haren antzeko elikagai konbentzionaletatik bereizten duen ezaugarri edo propietateren bat duela, bai eta,

kasua denean, elikagai horrek arazo etiko edo erlijiosoak sor ditzakeela.

Nola adierazi behar da etiketan elikagai bat transgenikoa dela? Arauak ezberdinak dira elikagai transgeniko mota bakoitzarentzat, eta kontuan hartzen da kontsumitzaileari eskaintzen zaion produktuak zer nolako ontziratzea izan duen ere. Elikagai transgeniko batzuk genetikoki eraldatutako organismoak dira, edo gisa honetako organismoak dituzte haien baitan, baina beste batzuk, ordea, genetikoki eraldatutako organismoetatik abiatuta eratu dira:

- a) GEO bat diren produktuak eta GEO bat barneratu duten produktuen kasuan, etiketak adierazi behar du "produktu honek genetikoki eraldatutako organismoak dituena" edo, kasua denean, zer nolako GEOa barneratzen duen (soja edo arto transgenikoa, adibidez). Produktua ontziratatu gabe balego, eta beraz etiketa non jarri ez balu, Erregelamenduek esaten dute informazio hau produktuaren aurkezpenean adierazi behar dela, edota aurkezpen horrekin batera doazen elementuetan.
- b) GEO bat eduki ez, baina GEO batetik abiatuta sortu diren produktuen kasuan, printzipioz ohartarazpena bildu beharko litzateke osagaien zerrendan, eta gisa honetako zerrendarik ez balego, orduan etiketan. Gerta daiteke produktua ontziratatu gabe egotea edo ontzia txikiagia izatea etiketa bat jartzeko; kasu hauetan, elikagaia aurkezteko jarri den erakusmahaiari edo handik gertu jarri beharko litzateke.

## 6. Transgenikoen aztarna jarraitzeko betebeharrak: trazabilitatea

2001ean, genetikoki eraldatutako organismoen askapena arautzen duen 90/220/EE Direktiba berri zen eta, beste gauza batzuen artean, gisa honetako organismoen trazabilitateari buruzko zenbait irizpide eman ziren. Trazabilitateak bermatu nahi du GEO bati jarraitzea egiten zaiola bere sorburutik kontsumitzaileari eskaintzen zaion arte. Bi motako helburuak ditu trazabilitatearen bermeak. Alde batetik, osasun publikoaren bermea, posible egiten baitu elikagai edo pentsu transgeniko baten jarraipen zehatza egitea eta ezusteko ondorio txarrik agertuz gero

36. Hau horrela da Kontseiluaren Erabaki bat jarraitu delako, Batzordeari dagozkion eskuduntza exekutiboak aplikatzeko Erabakia alegia (1999ko ekainaren 28koa). Ikus bereziki haren 5, 7 eta 8. artikulua.

37. Ikus Direktiba honen 2. artikulua.

aukera emango lukeelako produktu horiek merkaturik ateratzeko edo segurtasun neurri berriak antolatzen. Baina bestelako helburu batzuk ere betetzen ditu trazabilitateak, honi esker hobe bete baitaiteke kontsumitzaileak informazioa jasotzeko duen eskubidea. Trazabilitateari esker, egiaztatu daiteke etiketari buruzko arauak era egokian betetzen diren edo ez, eta kontrolatu daiteke ekoizpenetik merkatuan eskaini arte informazioaren komunikazioan egon litezken etenak.

Elikagai transgenikoen trazabilitatea bermatzeko neurriak, esan bezala, 2001/18/EE Direktiban agertu ziren lehenengoz. Direktiba honek eskatzen zuen GEOen trazabilitatea merkaturatzearen fase guztietan bermatzea, eta horretarako behar besteko neurriak hartzea eskatzen zien Estatuari. Baina, Direktibekin gertatu ohi zen bezala, hori betetzerakoan askatasuna ematen zitzaizen Estatuari euren barne antolamenduan trazabilitatea txertatzeko. Trazabilitatearen bermea kolokan geratzen zen horrela, eta horregatik, handik gutxira, Erkidegoko agintariek erabaki zuten egokiagoa zela trazabilitatearen arauak bakar eta harmonizatu bat. Hori izan zen 1830/2003 Erregelamenduaren abiapuntua. Erregelamendu honen 3.3 artikuluan definitzen da trazabilitatea: *“GEOak eta hauetatik eratorritako produktuen aztarna jarraitzeko gaitasuna da merkaturatze-prozesuaren fase guztietan, ekoizpen eta banaketa-kateetan zehar”*. Trazabilitate hori bermatzeko, sistema bat sortu da, pentsu edo elikagai bat transgenikoa dela aditzera ematen digun informazioa barreiatu eta era egokian zainatzeko.

Erregelamenduek esaten dute elikagai transgeniko baten lehen ekoizpen faseetik idatziz adierazi behar dela produktua GEO bat dela, GEO bat duela edo GEO batetik abiatuta sortu dela. Gainera, GEOak identifikatzeko sistema bateratu bat sortu dute Erregelamendu hauek, eta sistema hori erabili behar da dagokion GEOa zein den adierazteko. Informazio hau hurrengo faseetan parte hartzen dutenei eman behar zaie, baina informazio honen mantentzea ziurtatzeko, operadore guztiek bost urtez gorde behar dute informazio hau, eta derrigorrean jarri behar dute agintarien esku, hala eskatzen zaienean.

Etiketen kasuan bezala, arau ezberdinak ematen dira informazio hau emateko moduan, produktua GEO bat den edo duen, edota GEO batetik abiatuta sortu denean. GEO bat denean edo GEO bat barneratu duenean, ontziratuta dauden produktueta informazio hau etiketan jasoko da, eta ontziratuta gabekoetan argibide hau produktuaren aurkezpenean edo aurkezpen horri dagokion elementuetan. GEO batetik abiatuta sortu diren produktuen kasuan, bereizi egiten dira osagai zerrenda duten ontziak eta zerrendarik ez dutenak. Osagai, lehengai edo gehigarrien zerrenda balute, zerrenda horretan bertan adierazi

beharko litzateke; gisa horretako zerrendarik ez balego, informazio hori idatziz adierazi beharko litzateke produktuaren aurkezpenean.

## 7. Elikagai transgenikoen araudia hobetu al daiteke?

Bioteknologia agroalimentarioari dagozkion arauak eratu edo aldatzerakoan aurkitzen dugun lehendabiziko arazoa da arau horiek oreka bat bilatu dutela aktibitate bioteknologikoetan inplikaturik dauden sektore ezberdinen interes kontrajarrien artean. Oreka bilatze guztietan bezala, ezin izan dira sektore guztien interes guztiak asetu, eta, hori horrela, ulertzekoa da inor guztiz ados ez egotea. Nire ustez, dena den, kontsumitzaileak dira indartuen atera direnak. Nahiz eta oraindik transgenikoekin nolabaiteko zerikusia duen osasun-arrisku edo kalterik atzeman ez den, ekoizleei ezarri zaizkien trazabilitate eta etiketa-betebeharrak ez daukate parekorik gure merkatuan, ez eta atzerrian ere. Are gehiago, munduko elikagaien segurtasun-erakundeek, Europako Segurtasun Agentzia barne, ez dute pentsu eta elikagai transgenikoetan gizakien edo animalien osasunerako arriskurik ikusten, eta, beraz, pentsa daiteke agian gehiegizkoak direla neurri horiek guztiak. Batzuen ustez, badirudi transgenikoei erantsi zaiela behi eroen gisako krisiengatik erroa; beste batzuen ustez, eztabaidagarria da kontsumitzaileak zein puntu arte diren beren esku jartzen ari den informazioa ulertzeko gai, gehiegizkoa omen delako. Kontsumitzaileen partetik, baina, Erregelamendu hauei kritika asko egin dakieke. Elkarrekin eta ekologista askok salatu duten bezala, arauditik kanpo geratu dira elikagai transgeniko batzuk, nahiz eta oso gutxi diren. Salaketa gogorragoak egiten dituzte, araudiak ez duelako bermatzen merkatuan *“GEOrik ez duten”* produktuak eskainiko direnik, baina, esan bezala, kontsumitzaileen eskakizun hauek guztiak orekan jarri beharko dira beste ardura eta interes askorekin.

Edozein kasutan, eta objektiboki behintzat, argi dago 2003ko arauak hobetu egiten dutela aurreko egoera juridikoa. Teknikoki zehatzagoak dira, eta ziurtasun juridiko handiagoa eskaintzen dute. Aipatutako interes guztien arteko oreka egoikiago bat bilatzekotan, bi dira nire ustez eman daitezkeen pausoak. Lehenik eta behin, beharrezkoa da elikagaien etiketen araudi orokor bat eratzea eta, beste gauza batzuen artean, araudi horretan finkatzea Europako kontsumitzaile ertainak duen ezagutza eta kontzientzia maila zein den, bai eta maila horri dagokion informazio mota eta neurria zein izan behar den. Erregelamendu horrek aspaldi hasi zuen bere bidea, eta badirudi laster sartuko dela indarrean. Bestetik, eta lehenago ere aipatu dugunez, kontuan hartu behar da transgenikoak direla elikagaien etiketen historian ezagutu diren elikagairik “problematizatuenak”. Anti-bio-

tech mugimenduek "Frankenstein-food" eta horren gisako izenak eman izan dizkiete, eta, osasun eta teknika-ardurez gain, elikagai hauei beren jatorri teknikoa aurkakotu zaie, bai eta euren ekoizpenak dituen ondorio sozio-ekonomiko guztiak ere. Aipatzekoa da, adibidez, transgenikoen produkzio-moduek hirugarren munduko herrialdeetan dituzten ondorioak gogor salatu direla, nahiz eta transgenikoak ez diren nekazal-produktu askoren ekoizpenak ere ondorio berdin-berdinak dakartzan. Bioteknologian sinesten badugu baina, elikagai hauei bide eman behar zaie nolabait, eta zentzu horretan justiziazkoa iruditzen zait elikagai transgenikoek besteekiko duten egiazko aldea ondo markatzea, alde horrek justifika ezin lezakeen bereizkeriarik ez onartzeko. Ez dugu ahaztu behar Europako erakundeek berek onartu dutela Bioteknologiari esker elikagai osasuntsuagoak eta seguruagoak lortuko ditugula hirugarren milurteko honetan. Eman diezaiegun, bada, aukera bat.

